

Euskararen berri OLAtu gainean
2019KO MARTXOKO ALBISTEAK

Korrikan Ahobizi eta Belarriprestak izateko deia

Euskaraldian belarriprest eta ahobizi modura aritutako lagunei ariketa sozialean hartutako portaera eta ohiturak praktikatzeko gonbitea egin zaie eta horrela, 21. KORRIKAN ere ahobizi eta belarriprest gisa jarduteko deia egin dute Topagunea eta AEK-ko ordezkari Jasone Mendizabalek eta Mertxe Mugikak.

Migrazioa, euskarak espero ez zuen aukera

Konplexurik gabe aldarrikatu behar da migratzaileek euskaraz ikasi BEHAR dutela, bertako erakunde, elkarte eta norbanakook euskara EMAN behar diegula, ezin ditugula baztertu, kohesiorako tresna garrantzitsuena dugulako.

Kale erabilera, haur eta helduen artean

Neurketa guztietan ikusi da haurren presentzia eragin handiko aldegaia dela. 2016an, esate baterako, erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira (% 19,3) eta baxuenak nagusiak haurren presentziarik gabe ari direnean (% 8,6).

Euskara eta generoa gurutzatzen direnean

Jaime Altuna antropologoak eta Aizpea Otaegi hizkuntza aholkulariak “euskaltzaletasuna eta feminismoa: zer ikusi, hura elikatu” izenburupean eskaini hitzaldian bi lan alor horiek elkartzetik sortutako aukera berriei mintzatu dira.

"Komunikazioak zer behar duen? Sormena!"

Euskal Herriko panorama komunikatiboaren egoera oso azkar aldatu da azken urteotan eta Goio Arana eta Aitor Zuberogoitiaren hitzetan “euskarri tradizionalak (prentsa idatzia, telebista...) krisian daude, eta aktore berri asko sartu dira jokoan; adibidez, orain arte datuen transferentziaz arduratzen ziren eragileak (youtube, telefono konpainiak...)”. Irtenbide bakarra sormena da, Arana eta Zuberogoitiaren esanetan.

Nola antolatu tokiko euskaltzaleen mugimendua?

Abenduan amaitu zen Euskaraldiak milaka euskaltzale aktibatu eta batzordeak sortzea eragin du eta talde horien eraginkortasunaz eta iraunkortasunaz hausnartzea beharrezkoa dela uste dute Topaguneako kideek herrietako euskaltzaleen mugimendua egonkortzeko.

14 aholku ahoz ondo komunikatzeko

Hitzaldi bat eman behar duzu? Bilera batean txosten bat aurkeztu? Irakasle aritu? Ahozko komunikazioak garrantzia handia izaten du lan askotan. Eta gizarte mailan ere, diskurtso onak eskaintzeko trebezia gero eta preziatuago daukagu eta lotura honetan ahoz ondo komunikatzeko 14 aholku irakurri ahalko dituzu.